

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Larunbatean Euskal Irakurle Taldeen I. Biltzarra egingen da Iruñean

*Euskaraldiaren egitasmoaren baitan, hogeinaka talde baino gehiagko bilduko dira*

Osteguna, 2018.eko azaroak 22

Euskaraldiaren ekimenarekin bat eginez, larunbat honetan, azaroak 24, goizeko 09:30etatik 14:00etara bitartean Nafarroako Liburutegiak Nafarroako Euskal Irakurle Taldeen I. Biltzarra hartuko du. Ekitaldia, Nafarroako Liburutegiak, Nafar Ateneoak eta liburuzain eta euskarazko irakurleetako dinamizatzaile batzuk eratutako talde eragile abtek elkarlanean antolatuta dute.

Honen asmoa, Nafarroan euskaraz dabilzan irakurle taldeek elkar ezagutzea eta irakurle euskaldunek talde horien berri izatea da, baita euskaraz sortutako zein euskarara itzulitako lanen iritziak trukatzeko ere, bide batez euskarazko literatura sustatuz.

Dori Lopez Jurio, Kultura sail eta Principe de Viana Institutuko buruaren hitzek emango diote irekiera Anabel Arraiza kazetariak aurkeztutako ekitaldiari. Bertan, idazle nafarrekin mahai-inguru bat egingen da eta libteraturaren inguruko bertso saioa. Amaitzeko bazkaria ospatuko da parte hartzaileen artean.

Gaur egun badira 23 irakurle talde euskaraz Nafarroan ia bere geografia osoan banaturik, hilean behin elkartzen direa euskaraz idatzitako edo euskarara itzulitako literatura lanen inguruan aritzeko eta gutxi gorabehera 175 kidek parte hartzen dute taldeotan. Taldeak Antsoain, Arangurengo Ibarra, Artika, Barañain, Bera, Burlata, Erronkari, Etxarri Aranatz, Eugi, Iruñea, Leitza, Lizarra, Mutiloagoiti, Otsagabia, Tuter, Uharte eta Eguesibarreko Sarriguren eta Iruñeko Mendillorri auzoan elkartzen dira.

Informazio gehiago: [irakurletaldeak@gmail.com](mailto:irakurletaldeak@gmail.com)